

**Segunda época, número 35**

**ERRENTERIA**

**22 JULIO 2000**

# AGURRA



Aurten ere, aurreko urteetan bezalaxe, atsegin handiz zuzentzen natzaizue "oarso" aldizkari honen bidez bizilagun guztioi. Madalenak iristen direnean, "Oarso" aldizkaria, gure aldizkaria, kalean garaiz izaten dugu jende askok egindako lanari eta ahaleginari esker. Bihoakie hemendik nire esker ona.

Aurtengo hau agintaldi berri baten lehenengo urtea dugu. Etapa berri honi ilusio handiz ekin diogu eta konpromiso berriak hartu ditugu, Errenteria denok amesten dugun herri hori izan dadin, bertan bakean eta askatasunean bizi, lan egin, ongi pasa dezagun...

Azken hamabi hilabeteotan, Errenteria –beti bezala– eredugarri izan da. Izan ere, kultur, kirol, gazte eta era guztietako elkarteek buru belarri jardun dute ekitaldi ugaritan parte hartzen eta antolatzen.

Burutzen diren ekitaldi guztiak garrantzitsuak dira; baina beti ere badago baten bat nabarmentzen dena, bai duen kanpo proiekzioarengatik bai duen tradizioarengatik, hala nola: Euskal Herriko Eskulangintza Azoka, Ereintza Elkarteak antolatzen duena; Musikastea, Eresbilek eta Andra Mari Abesbatzak antolatzen dutena; Banden Alardea, Musika Kultur Elkarteak antolatzen duena; edota beste autonomia elkarteei zuzendutako asteak; besteak beste, Extremadura, Galizia, Errioxa; Mikelazulok antolatzen duen herri ezberdinei zuzendutako astea; auzoetako jaiak, eta abar luze bat.

Aipamen berezia egin nahi nuke, eta nire eskerrik beroenak helarazi Mozambiken izandako uholdeetako kaltetuen alde egindako jaialdian parte hartu zuten elkarte eta herritarrei. Elkartasunerako dugun izaeraren adierazgarri dugu hau zalantzarik gabe.

Aste Santuan Errumania eta Portugaletik etorritako monitoreak izan genituen gure artean, eta hurrengo astean "Gazte kirolarien nazioarteko topaketak" egin genituen. Beste leku batzuetako jendearekin harremanak edukitzeak erakusten digu ez garela batzuek adierazi nahi izaten diguten bezain ezberdinak, eta azken finean, gazteek beti erakutsiko digute helduago garenoi beren lekzioa, alegia, mugak, arrazak, hizkuntzak... eta bestelakoak alde batera utzita denok garela gizakiak, eta elkarrizketa eta elkar-ulertzearen bidez lor dezakegula guztiontzako ametsa den mundu hori.

Une honetaz baliatuz, Euskadin bizi dugun egoraren inguruko gogoeta egin nahi nuke. Gure kale eta herrietan indarkeria berriro azaldu eta gure espaloietan odola isurita ikusi dugu berriro. Hain ilun ikusten dugun kale-itsu honek irtenbide bakarra du, elkar-ulertzea eta elkarrizketa, eta ezein indarkeri edo koakzio bide ukatzea. Denok saiatu beharko genuke hainbeste irrikatzen dugun bakea lortzen.

Amaitzeko Errenteriako bizilagun guztiak zoriondu nahi ditut eta jai zoriontsua opa, etorriko direnei berriz, gure herri abegitsu honetan antolatutako ekitaldiez goza dezatela. Ez ditut ahaztu nahi edozein arrazoi dela medio gure artean jai hauetan egonterik ez duten gutiak, aurtengoa izan dadila Madalenetan bertan egoterik ez duten azkeneko urtea.

Gora Errenteria! Gora Madalenak!

Miguel Buen Lacambra

Errenteriako Alkatea.



# SALUDA

Un año más es para mi un honor enviar estas notas a través de la revista "Oarso" a todos y todas mis convecinos. Llegadas estas fechas de Magdalenas, la revista "Oarso", nuestra revista, sale a la luz gracias a la labor de muchas personas que le dedican sus mejores esfuerzos para que sea puntual a su cita. Desde aquí primeramente mi agradecimiento a todas ellas.

Éste ha sido el primer año de un nuevo mandato al frente de la Corporación Municipal. Nace una nueva etapa en la que muchos hemos puesto nuevas ilusiones y sobre todo un nuevo compromiso para conseguir esa Errenteria con la que todos soñamos, donde se pueda vivir, trabajar, divertirse, etc... en paz y en libertad.

Durante estos últimos doce meses, Errenteria ha dado ejemplo –como siempre– de su buenhacer. Las sociedades culturales, deportivas, juveniles y de todo índole han dado lo máximo de sí, organizando y participando en numerosos eventos.

Todas las actividades que se organizan son importantes; pero siempre hay algunas que destacan, bien por su proyección exterior bien por su tradición, como pueden ser: la Feria de Artesanía del País Vasco, organizada por Ereintza Elkartea; Musikaste, organizado por Eresbil y la Coral "Andra Mari"; el alarde de Bandas, organizado por la Asociación de Cultura Musical; o las semanas dedicadas a otras comunidades autónomas, como Extremadura, Galicia, La Rioja; la "Semana de los Pueblos", organizada por Mikelazulo; las fiestas de los diferentes barrios, y así un largo etcétera.

En este punto quisiera hacer una mención especial y mi agradecimiento a todas aquellas entidades y personas anónimas que colaboraron en la organización de un festival en favor de los damnificados por las inundaciones padecidas en Mozambique. Esto dice mucho de nuestro carácter solidario.

Tuvimos también la suerte de contar con la presencia de monitores portugueses y rumanos durante la pasada Semana Santa, y la semana siguiente los "Encuentros Internacionales de Jóvenes Deportistas" que nos hicieron comprender el valor de estos intercambios, de que no somos tan diferentes como algunos nos pretenden hacer creer, y que en definitiva los jóvenes siempre nos darán a los más mayores una lección de cómo mediante el diálogo y la comprensión, por encima de fronteras, razas o lenguas, somo seres humanos y que conseguiremos ese mundo con el que todos hemos soñado alguna vez.

No quisiera desaprovechar esta ocasión sin hacer una pequeña reflexión sobre el momento en el que como parte del pueblo vasco, nos encontramos. Otra vez la sinrazón de la violencia ha aparecido en nuestras calles y pueblos. Otra vez la sangre ha sido vertida en las aceras de nuestra Euskadi. Sólo mediante el ejercicio de la comprensión mutua, de la negación de cualquier método coactivo y violento, de la tolerancia y del diálogo podremos salir de este callejón que ahora mismo se nos antoja demasiado oscuro. Todos debemos colaborar para conseguir la ansiada paz.

Para finalizar, quiero desear a todos los y las errenteriarras unas felices fiestas de Magdalenas y a los que nos visiten que también disfruten de nuestra hospitalidad y de los actos organizados durante estos días. Tampoco quiero olvidarme de los que por diversas causas se encuentran fuera de nuestra Villa, para que este año sea el último en el que no puedan estar y compartir con nosotros las "Magdalenas".

Gora Errenteria!! Gora Madalenak!!

Miguel Buen Lacambra

Alcalde de 26.Renteria




*Zutik, ezkerretik eskubira / De pie, de izquierda a derecha:*
Gerardo Carrere Zabala, José Miguel Golmayo Gauna, Elías Maestro Ruiz, Mikel Arretxe Gutiérrez, Mikel Carcedo Mitxelena, Juan Carlos Merino González, Juan Carlos Murua Roma, José Javier Dorronsoro Gorriti y Juan Ignacio Gurrutxaga Iztueta.

*Eserita, ezkerretik eskubira / Sentados, de izquierda a derecha:*
Begoña García García, Ainara Lasa Pérez, Mª Ángeles Machín Rodríguez, Gema Artola Olaziregi, Miguel Buen Lacambra, Joaquín Acosta Pacheco, Julia Hernández Valles, Mª Mar Martínez Fernández y Koldo Mikel Elizalde Telletxea

*Ausenteak / Ausentes:*
Ángel Oyarzun Narvaez, Lucía Peralta Rodríguez y Mª Ángeles Bastos Fernández.